

Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioaren Jauregian, 1984.eko urtarrilaren 27an egin du bere hileroko batzarrea Euskaltzaindiak. Arratsaldeko 4etan ohi den otoitzarekin hasi da bilera. Etorri dira: L. Villasante euskaltzainburua, J. Haritschehar buruordea, P. Altuna, J. L. Davant, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, F. Krutwig, P. Lafitte, E. Larre, F. Ondarra, J. San Martin eta J. M. Satrustegi euskaltzainak, J. A. Arkotxa, M. Atxaga, R. Badiola, P. Charriton, J. Etxaide, J. G. Etxebarria, M.^a Pilar Lasarte, J. L. Lizundia, L. M. Mugika, P. Zabaleta eta A. Zatarain, euskaltzain urgazleak, J. M. Satrustegi idazkari dela.

Goizeko batzarrean L. Mitxelena ere egon da. X. Diharce eta P. Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

Abenduko batzar agiria onartu da.

A. Irigoien jaunak lortu berria duen doktoradutzagatik zorionak eman dizkio Euskaltzainburuak.

Goizeko batzarraren berri

Argitalpen Erregela Bereziak aztertzea zen goizeko saioaren lehen gaia. Hamarrak et'erditan hasi dira lanean. Lerroz-lerro irakurri dira proposamenaren artikuluguziak eta edukiari nahiz erredakzioari oharrak eta zuzenketak egin ondoren, Argitalpen Erregela Bereziak aho batez onartuak izan dira.

Erabaki honen bidez, orain arteko Argitalpenen Batzordea suntsitu da.

Era berean, Erregela berrien 3. artikuluan aipaturiko batzorde osaketa egiteko, P. Altuna eta F. Krutwig euskaltzain jaunak izendatu dira.

Maileguzko hitzen bukaerak. Bigarren gaia, Maileguzko hitzei buruz I Jardu-naldietan "Hitz bukaerak" deitutakoa zen. Orduan X. Kintana eta L. M. Mujika jaunek aurkeztutako txostenen arabera, A. Irigoien jaunak egin du erabaki proposame-na. Arazo hau garrantzitsutzat jotzen da eta izan ditzakeen ondoreak kontuan hartu-rik, puntu guziak zehatz-mehatz aztertu beharra ikusten da. Oro har, gaztelania ere-du bakartzat edukitzerik ezin dela onar, esan da. Adibideak ere banan-banan ikusi beharko dira.

Egun aurkeztutako proposamenari dagokionez, lehen atala ontzat era honetan eman da:

1. *-a organikoaz*. Mailegu berrien *-a organikoari* eustea gomendatzen du Euskaltzaindiak: Biologia, filosofia, kultura, historia... Honek, ordea, ez du esan nahi hitz elkartu eta eratorriak sortzerakoan *-ia* bukaera duten hitzetan azken *-a* hori ezin kenduzkoa denik: Biologi ikerlanak, Filosofi Fakultatea... Hitz elkartuen gaia beste bat da.

Nolanahi dela, hitz elkartu eta eratorriei dagokienez maileguzko zein euskarazko hitz jatorren *-a organikoa* konposizioan nola erabil litekeen erakusteko arau zehatzagoak emango ditu bere egunean Euskaltzaindiak.

Proposamenaren beste puntuak datorren batzarrean aztertzen jarraitzeko utzi dira. Norbaitek oharrik egin nahi badu aurrez idatzirik ekartzea eskatzen zaio.

Txostena

R. Badiolak "Euskara gaurkotzeko zenbait ahalegin" izenburuarekin irakurri du bere txostena. Itzultzailearen madarikatu antzeko itzal txarra aipatu du lehenik, ekintza honek dituen zailtasunak agertuz. Itzultzaileak hizkuntza menperatu behar du, hala nola hitzen etorkia ezagutu, beste hizkuntzarekiko esaeren kidetasuna baliatu eta gero bere funtsa adierazi. Itzulpena norentzat den ere ezin ahantz. Bat-bateko itzulpena besterik da. Elkarrizketa luze eta mamitsua sortu du txostenak.

Eta horrela amaitu da gaurkoa.

Euskaltzainburua

Fr. Luis Villasante

Idazkaria

Jose M.^a Satrustegi